

NOTA DE PRENSA

JOSÉ IGNACIO ASENSIO ESPERA EL ACUERDO DE GOVERNABILIDAD ENTRE PSE-EE Y PNV, EN TODOS LOS AYUNTAMIENTOS, INCLUIDOS IRUN Y EIBAR

- ✓ El Secretario General del PSE-EE de Gipuzkoa ha dicho que las negociaciones en los municipios, para cerrar acuerdos de gobernabilidad en los ayuntamientos antes del 17 de junio, “van bien”

El Secretario General del PSE-EE de Gipuzkoa, José Ignacio Asensio, se ha mostrado esperanzado de que las negociaciones entre PSE-EE y PNV para la conformación de los gobiernos municipales, cuyos acuerdos deben estar cerrados antes de este sábado, 17 de junio, para constituir los Ayuntamientos y la elección de los alcaldes y alcaldesas, se extienda a Irun y Eibar.

El dirigente socialista ha asegurado que “de momento” las conversaciones continúan y “veremos hasta donde llegamos”. Sin embargo, está convencido de que también el pacto hay que extenderlo a estas dos localidades que, en la pasada legislatura, el PNV no quiso formar parte de los gobiernos locales de José Antonio Santano y Jon Iraola.

En una entrevista, que ha tenido lugar esta mañana en ETB1 en Egun On Euskadi, Asensio ha dicho que ahora mismo, una vez firmado el acuerdo entre PSE-EE y EAJ-PNV para la gobernabilidad de las instituciones forales y locales del pasado 2 de junio, se han constituido comisiones negociadoras locales en aquellos municipios en los que alguno de los dos partidos fue el más votado. De esta forma el acuerdo proporcionará mayorías absolutas en San Sebastián, Elgoibar, Legazpi, Zarautz, Eibar, Irun, Lasarte-Oria y Zumarraga, y habrá acuerdo también allí donde sea posible como es el caso de Urnieta.

Ha explicado que la marcha de las negociaciones en cada municipio “van bien” y que los pactos en cada municipio se harán de forma “transparente y pública”. Ha dicho que el PSE-EE es un partido “serio” y que nuestros alcaldes y alcaldesas, así como concejales y concejalas tienen “mucho experiencia” en la gestión y la gobernabilidad. Por lo tanto, los negociadores se están tomando su tiempo “para hacer las cosas bien” y cerrar un buen acuerdo en cada localidad, que será “profundo”.

Respecto a la última propuesta de Maddalen Iriarte para configurar un gobierno a cuatro entre EH Bildu, PNV, PSE-EE y Elkarrekin Podemos, Asensio ha dicho que ha sido una “sorpresa”. Pero ha criticado que lo que resulta “raro” es que un ofrecimiento de estas características se haga en la calle, delante de los medios de comunicación, pero sin ningún documento que respalde la propuesta y sin ninguna comunicación con el resto de las fuerzas políticas. Por eso, ha querido dejar claro que para el PSE-EE el socio prioritario es el PNV para llegar a acuerdos de gobierno en la Diputación Foral de Gipuzkoa, aunque ha explicado que en las Juntas

Oficina de Prensa

C/ Prim, 15 – 20006 Donostia

Tel: 943455655 /// Móvil: 670586833 /// Fax: 943452530

prensa@socialistasguipuzcoanos.com

Generales tendrá que haber acuerdos entre todas las fuerzas políticas. Siempre hemos estado por el acuerdo entre diferentes con el objetivo de mejorar la vida de nuestros ciudadanos, ha dicho.

Por último, está convencido de que los resultados del 28M han sido positivos en una campaña electoral absolutamente polarizada, que ha propiciado una alta abstención. Aunque ha reconocido que el PSE-EE de Gipuzkoa está analizando los datos aún, las urnas han demostrado que los socialistas guipuzcoanos somos determinantes en la gobernabilidad. También ha reconocido que la gestión de estos últimos años ha sido buena y que hay que seguir apostando por los proyectos “estratégicos” con políticas “de futuro” para hacer frente a los retos que tiene este territorio.

Donostia/San Sebastián, 9 de junio de 2023

PRENTSA-OHARRA

JOSÉ IGNACIO ASENSIO PSE-EE ETA EAJ-REN ARTEKO GOBERNAGARRITASUN AKORDIOA UDAL GUZTIETAN LORTZEA ZAIN DAGO, IRUN ETA EIBARREN ERE

- ✓ Gipuzkoako PSE-EEko idazkari nagusiak esan du udaletan ekainaren 17a baino lehen gobernagarritasun-akordioak ixteko negoziazioak “ondo doazela”.

José Ignacio Asensio Gipuzkoako PSE-EEko idazkari nagusia itxaropentsu agertu da udal gobernuak osatzeko PSE-EEren eta EAJren arteko negoziazioak Irunera eta Eibarrera zabalduko direlakoan. Akordioak itxita egon behar dira larunbata baino lehen, ekainaren 17a, udalak eratzeko eta alkateak hautatzeko.

Buruzagi sozialistak ziurtatu duenez, oraingoz elkarrizketek aurrera jarraitzen dute, eta “ikusiko dugu noraino iristen garen”. Hala ere, ziur dago ituna bi herri horietara ere zabaldu behar dela, aurreko legealdian EAJk ez baitzuen José Antonio Santanoren eta Jon Iraolaren udal-gobernuetan parte hartu nahi izan.

Gaur goizean Egun On Euskadin ETB1en egin dioten elkarrizketa batean, Asensiok esan du PSE-EEk eta EAJ-PNVk joan den ekainaren 2an foru- eta toki-erakundeen gobernagarritasunerako akordioa sinatu ondoren, tokiko negoziazio-batzordeak eratu direla bi alderdietako bat bozkatuena izan zen udalerrietan. Horrela, akordioak gehiengo osoa emango du Donostian, Elgoibarren, Legazpin, Zarautzen, Eibarren, Irunen, Lasarte-Orian eta Zumarragan, eta akordioa egongo da ahal den lekuetan, hala nola Urnietan.

Oficina de Prensa

C/ Prim, 15 – 20006 Donostia

Telf: 943455655 /// Móvil: 670586833 /// Fax: 943452530

prensa@socialistasguipuzcoanos.com

Azaldu duenez, udalerrri bakoitzeko negoziazioen martxa “ondo doa”, eta itunak modu “gardenean eta publikoan” egingo dira. PSE-EE alderdi “serioa” dela esan du, eta gure alkateek eta zinegotziek “eskarmentu handia” dutela kudeaketan eta gobernagarritasunean. Beraz, negoziatzaileak beren denbora hartzen ari dira gauzak ondo egiteko eta herri bakoitzean akordio on eta “sakona” ixteko.

Maddalen Iriartek EH Bilduren, EAJren, PSE-EEren eta Elkarrekin Podemosen artean lauko gobernua eratzeko egin duen azken proposamenari dagokionez, Asensiok esan du ezustea izan dela. Are gehiago, “arraroa da horrelako eskaintza bat kalean egitea”, hedabideen aurrean, baina proposamena babesten duen dokumenturik gabe eta gainerako indar politikoekin inolako komunikaziorik gabe. Horregatik, argi utzi nahi izan du PSE-EErentzat lehentasunezko bazkidea EAJ dela Gipuzkoako Foru Aldundian gobernu-akordioak lortzeko. Hala ere, azaldu du Batzar Nagusietan akordioak egin beharko dira indar politiko guztien artean. Beti egon gara ezberdinen arteko akordioaren alde, gure herritarren bizitza hobetzeko helburuarekin, esan du.

Azkenik, ziur dago M-28ko emaitzak positiboak izan direla hauteskunde-kanpaina erabat polarizatu batean, abstentzio handia eragin duena. Nahiz eta Gipuzkoako PSE-EE oraindik datuak aztertzen ari dela, hauteskundeetarako hautestontziek erakutsi dute Gipuzkoako sozialistok erabakigarriak garela gobernagarritasunean. Halaber, aitortu du azken urteotako kudeaketa ona izan dela, eta etorkizuneko politikak dituzten proiektu “estrategikoen” aldeko apustua egiten jarraitu behar dela, lurralde honek dituen erronkei aurre egiteko.

Donostia, 2023ko ekainaren 9a